



Azaroak
17 - 18
2016

Orona Fundazioa
[Galarreta Auzoa, Hernani]
Koldo Mitxelena Kulturgunea
[Donostia]

Euskadiko Kirolaren **VI. Biltzarra**

“Kirolaren zehar-balioa”

LEKUA	Orona Fundazioa [Hernani] eta Koldo Mitxelena Kulturgunea [Donostia]
EGUNAK	2016ko azaroaren 17 eta 18an
ANTOLATZAILEAK	KAIT-Euskadiko Kirolaren Arlorako Iritzi Taldea, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Hernaniko Udala eta Euskal Herriko Unibertsitatea
LAGUNTZAILEAK	Kirolaren Euskal Eskola, FAGDE eta COLCAFID.
EGITURA	Kongresua hiru multzo orokorretan egituratzen da. Multzo bakoitzaren barruan esparru-hitzaldi bat egongo da eta baita 3 edo 4 ponentzia ere. Halaber, arlo bakoitzean aurkeztu ahal izango dira komunikazioak, praktika onak eta praktika arrakastatsuak.

PROGRAMA

AZAROAREN 17a OSTEGUNA

Orona Fundazioa

09:00 Partehartzaileen helduera.
Dokumentazio ematea

09:30 Biltzarraren inaugurazioa eta hasiera

PRESTAKUNTZA KIROLA – ESKOLA KIROLA

10:00 *Guillem Turró i Ortega* “Kirolaren hezkuntza-gaitasuna”

10:50 *Xabier Mendoza Michelena* “Gorputz Hezkuntzaren atzokoa, gaurkoa eta biharkoa, Euskadin”.

11:20 *Luis Mari Zulaika Isasti* “Eskola kirola. 25 urte eta gero hau”

11:40 *Tomás Fernando Ruiz Pérez* “Profesionalak eta kirola”

12:00 Eztabaida – mahai ingurua

12:30 Atsedena

12:45 1. blokearen komunikazioen aurkezpena eta 2. blokearen esperientziak

13:50 Lan bazkaria eta eztabaida

15:00 Atsedena

KIROL SOZIALA ETA GIZARTE KIROLDUA

15:30 *Roberto San salvado* “Kirola 360º. Kirola, gorantz doan gizarte bateko testuinguruan.”

16:40 *Juan Aldaz* “Errepikatze soziala vs. Aldaketa Soziala, kirolean eta kirolaren bidez. Egungo egitura instituzionalaren azterketa kritikoa, edo nola doaz galderak erantzunak baino azkarrago.”

17:00 *Imanol Ibarondo* “Baloreak ez ditu kirolak berak”

17:20 *Aingoa Azurmendi / Matxalen Laskibar* “Kirolean, berdintasun formaletik benetako berdintasunera pasatzeko dauden erresistentziak”

17:40 Eztabaida – mahai ingurua

18:00 Atsedena

18:15 2. blokearen komunikazioen aurkezpena eta 3. blokearen esperientziak

19:15 Jardunaldiaren itxiera

AZAROAREN 18a OSTIRALA

Orona Fundazioa

KIROLAREN POLITIKAK ETA KUDEAKETA

09:30 *Nuria Puig*. “Kirola bidegurutzean”

10:20 *Mª Jose Pedrosa* “Zer nolako kirol-politikak, egokitzapenerako erronken aurrean?”

10:45 Baieztatu gabe “Kirol egituratua Euskadin eta kudeaketarako gakoak”

11:10 Fitness arloko operadore pribatuen estrategiak, gaur egunekoak eta etorkizunekoak.

12:00 Eztabaida – mahai ingurua

12:30 Atsedena

12:45 3. blokearen komunikazioen aurkezpena eta 1. blokearen esperientziak

13:50 Lan bazkaria. Hitzaldia: Luis Solar. "Kirol kudeatzailea"

16:00 Atsedena

AZAROAREN 18a OSTIRALA

Koldo Mitxelena
Kulturgunea

HITZALDIA, ONDORIOAK ETA BIDEO FORUMA

17:00 Video-forum "SUPERTRAIN ME" *Susana Aznar*

18:00 Mahai inguru irekia [*Susana Aznar, Kepa Lizarraga, Gorka Núñez*]

19:00 Biltzarraren itxiera

PREZIOAK

25 € KAIT taldeko kideak, FAGDE, Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofiziala, ikasle eta beste erakunde laguntzaileak

40 € Gainerakoak

[Eztabaidarako foroak sortzeko eta esperientziak trukatzeko xedez, izen ematearen prezioan osteguneko eta ostiraleko bazkaria ere sartzen da].

IZEN-EMATEAK

Irailaren 1etik aurrera.

Izen-ematea egiteko **prozedura hau jarraitu behar da:**

1: Kirolaskolaren web-gunean, www.kirolaskola.net, on-line izen-emateari dagokion prozesuaren bitartez izen ematea egin.

Esteka hau sakatu: [izen-ematea](#), eta aipatzen den prozedura jarraitu.

Bigarren pausuan, eskeintzen diren aurren artean ekitaldi honetakoa hautatu.

2: KAIT-en kontu korrente zenbaki honetara dagokion dirukopuruko transferentzia egin: 2095 0363 51 9116155521 – KUTXABANK

- Gaia atalean parte hartuko duen pertsonaren izen-abizenak azaldu beharko dira.
- 25€tako dirusari murriztua ordaindu duten ikasleek dagokion agiria helarazi beharko dute helbide elektronikoa honetara: kirolaskola@euskadi.eus

*Erakunde laguntzailearen baten partaideek ez dute egiaztatu behar izango.

OSTATUA

Hotel ofiziala: [zehazteko]

Banakako logela eta gosaria: [zehazteko]

Garraioa dohainik izango da izena eman duten guztientzat Hotel Ofizialetik Orona Zentrora. Lehenetsuna izango dute Kongresuko Hotel Ofizialean izena eman dutenek.

WEB ORRIA HARREMANA

kait-kirola.org

kirolaskola@euskadi.eus

944 304 867

ESPARRU TEORIKOA

1996. urteaz geroztik, lau urtean behin eta urte olinpikoekin bat eginez, euskal kirolarekin lotura duten eta alor horretan baldintzak jartzen dituzten eragileak gonbidatzen da Euskadiko Kirol Kongresuan parte hartzera.

Beharrezkotzat jotzen dugu gure eguneroko zereginak alde batera uztea, atzera begiratzea, eta azken lau urteetan gure kirolak erakutsi dituen alderdietako batzuk aztertzea, eta, aldi berean, garai horretan izan ditugun erronkei aurre egiteko gure gaitasuna baloratzea. Halaber, gure ustez, interesgarria da azterketa prospektibo bat egitea eta, horrela, etorkizunean zalantzarik gabe aurkeztuko diren erronkei erantzuteko prestatuta egotea.

Gure helburua da, alde batetik, ahalik eta eragile kopuru handiena elkartzeko eta, bestetik, hausnarketak, esperientziak eta jakintza trukatzeko ikuspegi desberdinetatik begiraturik, kirolari lotutako mundu konplexua eta aldakorra hobeto ulertu ahal izateko.

Kirolak, errendimendu eta kirol bikaintasuna dutenek praktikatzeko duten jarduera lehiakorrak, onarpen handia eta zabala lortu du geure gizartean, eta horrek garapenerako balio garrantzitsua ematen dio, bai bakarka zein kolektiboan. Azken hamarkadetan, gainera, kirolak beste sektore batzuen arreta erakarri du, hala nola, osasunarena, ekonomiarena, gizarte zientzia, ikuskizunena, zuzenbidearena edo ingurumen zientzia, eta alor horiek guztiek egiten duten ekarpenaren iragazkortasun progresiboa ikus daiteke.

Kirolak gizartean izan duen aurrerapenak espazio garrantzitsua merezi du Biltzar honetan. Kirola duin bihurtzen ari da gizartean, genero desberdintasuna modu orekatuagoan tratatzearekin, dibertsitate funtzionalarekin eta maila guztietako gizartratzearekin eman diren aurrerapausoak direla eta. Alde horretatik, ezagutza eta esperientzia interesgarriak eskuratzen ari gara eta kirolarekin dugun zita akademiko eta dibulgatzaile honen bidez zabaldu nahi ditugu.

Lau urtean behin egiten den zita honekin gizartearen, herritarren eta kirolarekin zerikusia duten hainbat sektoretako profesionalen arreta geureganatu nahi dugu, kirolaren balioa benetan ateratzen lagunduko digun zeharkako ekintza baterako oinarria baita, **KIROLAREN ZEHAR-BALIOA**.

I. MULTZOA PRESTAKUNTZA KIROLA ESKOLA KIROLA

Zalantzarik gabe, gizartean kirolaren balioei buruzko kontzientzia zabaldua dago, gure bizitza osoan zehar aktibo mantentzeak duen garrantzia nabarmena da. Bereziki, derrigorrezko hezkuntza sistemako adinean daudenengan, izan ere, orduan hartzen baitira, batez ere, pertsonaren jarduteko oinarrizko ereduak. Hain zuzen ere, adin horretan jasotzen baitu hezkuntza sistemak hezkuntza fisikoa irakasgai kurrikular gisa. Eta Euskadin duen trataerak nahi dugun parametroei erantzuten dioten aztertu behar da, eta, zehatzago, Europar erreferentzia diren, eta eredutzat hartzen ditugun, herrialdeetan onartuta dauden eta aplikatzen diren parametroei.

Era berean, ezin dugu ahaztu orain dela gutxi 25 urtebete direla eskola kirolaren euskal proiektua sortu zenetik. Argiak eta itzalak dituen sistema da, gure lurralde historikoetako bakoitzean trataera eta emaitza ezberdinak izan dituen, baita Nafarroa eta Iparraldearekin konparatzen badugu ere. Lurraldearen batean emaitza aipagarriak izan baditu ere, hobetzeko asko dago oraindik; bereziki, genero berdintasunari, lehiaketaren trataerari, formazioari edo multikirolaren antolamenduari dagokionez.

Azkenik, adin txikietako kirolean, eskolakoan zein federaziokoan, sartuta dauden pertsona askorentzat kezka bihurtu den gai bat plazaratu nahi dugu. Ehunka begirale eta entrenatzailearen arautzeaz eta diru sarreraren aitortzea egiteko duten betebeharrak ari gara, kontratazioaren jatorriaz eta derrigortasunaz. Gai zaila da eta ez dugu alboratu nahi.

II. MULTZOA

GIZARTE KIROLA ETA KIROLDUTAKO GIZARTEA

Kirolak, errealitate kulturala den heinean, gizartearekin harreman dialektikoa dauka. Gizarte joerei egokitutako kirol jarduerak sortzen dira, hala nola, individualismoa, aisia, teknologia, eta abar. Bestetik, kirolak eragin zuzena du gizartean. Formazio zibikorako prozesuan kirola ezinbestekoa da balioak geureganatzeko, eta pertsonak duten sozializatzeko moduari eragiten dio, gizartearen eraldaketan eraginez.

Multzo honetako komunikazioek kirolaren praktikan balio sozialak sartzeko prozesuan jarriko dute arreta: ekitatea, elkartasuna, berdintasuna, gizarte kohesioa, ingurumenarekiko kontzientzia... Nola sartzten ari dira edo nola sar ditzakegu kirolaren antolaketan eta kudeaketan? Beste prozesu batzuetan ere jarriko du arreta: nola sartzten ari dira kirolaren balioak eta kirolaren hizkuntza marko sozial orokorraren parte izatera?

III. MULTZOA

KIROLAREN POLITIKAK ETA KUDEAKETA

Kirol eragileek, publiko zein pribatuek, orain arte garatutako politikek herritarrek kirolaren praktikara hurbiltzeko sustapenean izan dute oinarria. Oro har, oso prezio baxuetan kirol zerbitzuak emateko instalazioak eraikiz. Eraitza oso ona izan da, baina hobetu beharrekoa. Hori egiteko moduan dago zailtasuna. Herritarren erdiak ez du ariketa nahikorik egiten eta nola lortu horiek martxan jartzea? Nola lortuko dute erakundeek indarra hartu eta balio proposamena modu iraunkorrean modernizatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko erronkari aurre egitea?

Azken hamarkadetan aplikatutako politika publikoek kirol federatuaren beharrei ere erantzun diete. Nahiz eta XXI. mendeko kirolaren errealitate sozial berria bigarren mailakoa izango den. Nola ekin behar zaio Euskadiko kirol federazioen eta klubuen egiturazko aldaketari eta kudeaketari paper garrantzitsua izaten jarrai dezaten, bermeari eta eraginkortasunari eutsiz?

Udalerrien arteko lankidetzak eta publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak dira, gimnasioen bat-bateko sartzarekin batera –bereziki low cost direlakoak–, azken hamarkadan kirola denontzako kudeatzeko berrikuntza nagusietako bat. Nola helduko diote udalerriek eragile guztien ahalmenak baliatuz herritarren artean jarduera fisikoa orokortzeko erronkari? Zein paper jokatu dute Euskadin fitnessaren operadore handiek?

KOMUNIKAZIOAK ETA ESPERIENTZIAK

Bai komunikazioak bai esperientziak bidaltzeko aukera dago. Izatekotan, bidalitako proposamenek kongresurako proposatutako hiru ardatzei eutsi behar izango diete, eta erlazioa izan behar izango dute gutxienez haietako batekin.

Informazio gehiago hurrengo orrietan.

Euskadiko Kirolaren VI. Biltzarra

“Kirolaren zehar-balioa”

KOMUNIKAZIOAK ETA ESPERIENTZIAK

INFORMAZIO OROKORRA

Euskadiko Kirolaren VI. Biltzarra 2016ko azaroaren 17, eta 18an Hernani-Donostian gauzatuko da. Kirola eta giza garapena abiapuntutzat hartuta, ondorengo hiru ardatz nagusi izango ditu biltzarrak:

1. eskola- eta formazio-kirola
2. kirol soziala eta gizarte kiroldua
3. kirol politikak eta kudeaketa

Aurrerago zehaztuko den moduan, aurtengo ekitaldian komunikazioak edo esperientziak bidaltzeko aukera izango da eta proposamen guztiek kontuan hartu behar dituzte biltzarrerako proposatu diren hiru arloak, berauetako batekin erlazionatuta egon beharko dutelarik. Jasotako lanekin biren artean burututako ebaluazio itsua bermatuko da.

Komunikazio-esperientzien inguruko dudak badituzue, bidali mezu bat ondorengo helbide elektronikoetako batera: oidui.usabiaga@ehu.eus edo luis.m.zulaika@ehu.eus

Biltzarraren inguruko galdera orokorrak badituzue ordea, mesedez, bidali mezu bat biltzarreko idazkaritzara: kiroleskola@euskadi.eus

LANEN EZAUGARRIAK

KOMUNIKAZIOAK

ikazioak ikerketa original baten ondorio nagusiak azaltzeko erabiliko dira, betiere zuzentasun zientifikoaren irizpideei jarraiki. Pertsona bakoitzak nahi adina komunikazio aurkez ditzake. Era berean, ez dago mugarik egile kopuruari dagokionez.

Komunikazioak gehienez 2000 hitzez osatuko dira [erreferentziak barne] eta gutxienezko arau batzuk errespetatu behar ditu [ikusi I. eranskina]. Arau hauek betetzen ez dituztenak baztertuak izango dira. Komunikazioa antolatzeko atalei dagokienez, hor dauden puntuak errespetatzea gomendatzen da, nahiz eta azaldu nahi den ikerketa motaren arabera bestelako egiturak ere onartuko diren. Erreferentziak idazteko jarrai ezazue *APA 6th edition style*.

ESPERIENTZIAK

Esperientziak praktika arrakastatsuak zein berritzaileak azaltzeko erabiliko dira. Pertsona bakoitzak nahi adina esperientzia aurkez ditzake. Era berean, ez dago mugarik egile kopuruari dagokionez.

Esperientziak gehienez 2000 hitzez osatuko dira (erreferentziak barne) eta gutxieneko arau batzuk errespetatu behar ditu (ikusi II. eranskina). Arau hauek betetzen ez dituztenak baztertuak izango dira. Erreferentziak idazteko jarrai ezazue *APA 6th edition style*.

AURKEZTUTAKO LANEN ZIURTAGIRIA

Lanak biltzarrean aurkeztu edo partekatu ondoren, izena eman duen egile bakoitzak komunikazioa edo esperientzia aurkeztu izanaren ziurtagiria jasoko du. Ziurtagiria eskuratzeko beraz, ezinbestekoa izango da Biltzarrean izena ematea eta bidalitako proposamena (komunikazioa zein esperientzia) aurkeztea.

HIZKUNTZA

Hasiera batean, lanak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke, nahiz eta beste hizkuntzaren batean aurkezteari aterik ez itxi. Hori bai, eskertuko genuke adieraztea komunikazioa edo esperientzia zein hizkuntzatan azaldu nahi den bidali aurretik, modu itsuan ebaluatzeko gai garen aztertzeko.

BIDALTZEKO MODUA ETA LANEN EBALUAZIOA

Biltzar honetarako aurkeztu nahi diren komunikazio eta esperientziak arlo bakoitzerako zehaztutako helbide elektronikoetara oidui.usabiaga@ehu.eus edo luism.zulaika@ehu.eus, bidali behar dira adierazitako azken eguna baino lehen **(2016ko urriaren 15a 24:00a baino lehen)**. Lan bakoitza arlo bakarrera bidali behar da. Gogoratu, gutxieneko arauak errespetatu ezean edo epez kanpo bidaliz gero, lan horiek ez direla ebaluatuko eta baztertuak izango direla.

Arduradunei Word dokumentua bidaltzean, artxiboa lanaren izenburuarekin izendatu. Jaso bezain laster, biren artean ebaluatua izango da, modu itsuan (egileen izen-abizenak ezagutu gabe). Beraz, bidalitako lanetan kendu autoaipuak edo beraiena dela adierazten duten testu zatiak. Antolatzaileek helbide elektronikoz komunikazio eta esperientzien onarpena edo baztertzeari jakinaraziko diete egileei, betiere, 2016ko urriak 25a baino lehen.

IZENA EMATEA

Bidalitako lana onartua izan denean, egile guztiei izena emateko aukera eskainiko zaie (2016ko urriaren 16tik azaroaren 11ra). Lana aurkezteko nahikoa izango da egileetako batek izena ematea. Ziurtagiria izena eman duen egile bakoitzari emango zaio.

WEB ORRIAN ESKURAGARRI ETA LIBURU DIGITALEAN ARGITARATZEA

Bidali eta onartutako lan guztiak eskuragarri izango dira izena eman duten guztientzat web orrian.

Bestetik, aukera izanez gero, ISBNdun liburu digitalean argitaratuko dira onartutako lan guztiak. Egile batzuek ez dute nahi izaten beraien komunikazioa (edo esperientzia) liburu digital batean argitaratzea, besteak beste, aurrerago artikuluko zientifiko moduan aldizkari batera bidali nahi dutelako. Horren jakitun garez, egileren batek ez badu nahi beraien proposamena liburu digitalean agertzea, onartua izan dela adierazten duen mezua jasotzean, erantzun dezala ez duela nahi argitaratzea esanez.

SARIAK

Bidali eta onartutako lanek sari bat jasotzeko aukera izango dute. Komunikazioen zein esperientzien arlo bakoitzeko diploma eta 150 euroko sari bana emango dira. Lan hoberenak zeintzuk diren zehazteko bozen %50a Ikerketa Batzordeak erabakiko du eta beste %50a entzuleek (biltzarrean zehar saioetara agertzen den publikoak).

Komunikazio hobereenen sariak orijinaltasuna, ekarpen zientifikoa eta aurkezpenaren kalitatea irizpideen arabera hautatuko dira. Esperientzia hobereenen sariak berriz, orijinaltasuna, ekarpen soziala (edo inpaktu soziala) eta aurkezpenaren kalitatea irizpideen arabera hautatuko dira.

Halaber, ikusleek komunikazioen edo esperientzien saio bat amaitzean aretoan jarrita dauden bozkatzeko kutxa batean bozkatu ahal izango dute, komunikazio bakoitzari 0-10 artean jarritz. Kalifikazio guztiekin zerrenda bat osatuko da, betiere eskuratutako puntuen ordenari jarraiki. Ikerketa Batzordeak prozesu berbera erabiliko du bere zerrenda ordenatua osatzeko.

Ikusleen bozekin osatutako zerrenda eta ordena kontuan izanda (%50a), Batzorde Zientifikoaren bozekin (%50a) batz bestekoa egin eta ostiral eguerdian sariak banatuko dira.

ARGIBIDE GEHIAGO

kait-kirola.org


ANTOLATZAILEAK:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



GORAIN
GIPUZKOA



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE



LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:

